

AGUR ALFONSO, AGUR!

In memoriam Alfonso de Otazu Llana

Orain dela egun batzuk, 2022ko abenduaren 28an, 73 urte zituela eta Zurbaon -Araba-, gure Herrialdeko gizaki kultu eta azkarrenetariko batek, eta historialari onenetariko batek ere -onena ez bazen- utzi egin gintuen; eta, hala ere, berak nahi izan zuen moduan joan zen, zarata egin barik eta prentsan agertu gabe. Gizarte edo mundu hain politizatu eta berekoi honetan apala eta, aldi berean, independente izateak daukana da. Berak onartuta zeukan. Hori dela eta, historialarien lanari buruz, zera esaten zuen: “Gure aitortpena beste ikertzaileen oin-oharretan aipatuak izatea da”.

Alfonso de Otazu Llana 1949ko abenduaren 26an jaio zen, Donostian. *Aristokratikotzat* har genezakeen familia batean hazi zen, nahiz eta bera, laua eta apala izanik, ez zen inoiz halakotzat hartu. Bederatzi hilabete besterik ez zituela, poliomieltis gaixotasuna harrapatu zuen, eta horren kontra gogor borrokatu zuen bere bizitzan guztian zehar. Horrela, gaixotasuna ez zen izan oztopo Zuzenbidea ikasteko, nahiz eta Historia bere zaletasun handiena izan, eta urte askotan denetariko eta maila guztietako lanetan aritzeko, baita gobernu-lanetan ere, hauei buruz hitz egitea gutxi gustatu arren.

1970. urtean, 21 urte oraindik betetzear zituela, *Hacendistas navarros en Indias* liburua argitaratu zuen, eta hiru urte geroago, 1973an, *El igualitarismo vasco: mito y realidad* ospetsua -gure historiografiarako ezinbestekoa. Historiaren aurreratu bat izan zen dudarik gabe, urte pila bat lehenago gaur egun berriak diruditen arlo eta teoriak ikertu eta defendatu baitzituelako. Julio Caro Baroja eta Ramón Caranderen ikaslea, beste bi handi; Alfonsok grina eta erraztasun harrigarritz idazten zuen. Ondorioz, apurka-apurka, hainbat liburu gehiago kaleratu zituen: *La burguesía revolucionaria vasca a finales del siglo XVIII*, *Reforma fiscal en la España moderna*, *Los Rothschild y sus socios en España* edo *El espíritu emprendedor de los vascos* -azken hau bere lagun José Ramón Díaz de Duranarekin batera-. Den denak, bere lan eta estiloari leialak, etorkizuneko ikerlanerako erreferenteak.

Azken urteetan, Valleko kondeari buruz idatzi zuen, *El fotógrafo, frente a la cámara y de cerca*; modu zehatz eta zorrotzean, berak zekien bezala, Ampuero familia ikertu zuen *Los Ampuero, historia de una familia vizcaína* liburuan; bere esperientzia, barru-barrutik, estatu mailako hiru museoen sorkuntzaren zirrikituetatik kontatu zuen, *Testigo de descargo*; eta bere arbasoen -senideen-historiarekin ausartu zen, hasiera batean Sancho *el sabio* Fundazioak plazaratuko duen idazki digitala.

Gure Kulturak eta Historiak oraindik ez daki zer galdu duen. Gure historialari eta ikerlari serio eta objektiboenetako bat joan da, eta pertsona moduan, ezagutu dudako koherente eta zintzoenatariko bat ere bai.

Nolako zorrea izan zen zu ezagutzea, 1997. urtean, Bizkaiko Foru Artxiboan! Eta orduetik, zu laguna izatea; eta zurekin hainbat eta hainbat ordutako elkarrizketa atsegin eta interesgarri eduki ahal izatea! Mila esker zure jakintasunaren, gizatiar eta intelektualaren, partaide egiteagatik! Pribilegio hutsa izan da! Zure falta sumatuko da!

Agur Alfonso, agur! Edo... gero arte!

Igor Basterretxea Kerexeta

(Historialaria)

AGUR ALFONSO, AGUR!

In memoriam Alfonso de Otazu Llana

Hace un par de semanas, el día 28 de diciembre de 2022, con 73 años y en Zurbano -Álava-, nos dejó una de las personas más cultas e inteligentes del País, así como uno de sus mejores historiadores -por no decir, el mejor-, y, sin embargo, se fue -eso sí, como él siempre quiso- sin aparecer en prensa y sin meter ruido. Es lo que tiene, en este mundo o sistema tan politizado y egoísta, ser humilde y, a la vez, independiente. Él lo tenía asumido. Tanto es así que, en relación a la labor de los historiadores, a menudo repetía lo siguiente: “Nuestro reconocimiento está en ser mencionado en las notas de pie de otros investigadores”.

Alfonso de Otazu Llana nació el 26 de diciembre de 1949 en Donostia, en una familia que podríamos definir como *aristocrática*, aunque él, llano y sencillo, nunca se consideró tal. Tuvo la mala suerte de contraer, con tan solo nueve meses, la poliomielitis, enfermedad contra la que luchó con ahínco durante toda su vida. De hecho, su enfermedad no fue obstáculo para estudiar Derecho, aunque su gran afición era la Historia, y trabajar durante años de todo y a niveles -incluso, gubernamentales- de los que no le gustaba hablar ni contar en exceso.

Autor, en 1970, sin cumplir aún los 21 años, del libro *Hacendistas navarros en Indias*, y tres años después, en 1973, de su famosísimo *El igualitarismo vasco: mito y realidad* -obra imprescindible para nuestra historiografía-, fue un adelantado de la Historia, tratando y defendiendo, muchos años antes, temas y teorías que, ahora, parecen novedosos, porque tenía la capacidad de ver y comprender detrás de los acontecimientos históricos muchas cosas que a los demás se nos escapaban. Discípulo de Julio Caro Baroja y Ramón Carande, otros dos grandes; Alfonso, escribía con una pasión y una facilidad asombrosas. En consecuencia, poco a poco, vinieron otros muchos libros, desde *La burguesía revolucionaria vasca a fines del siglo XVIII*, *Reforma fiscal en la España moderna* o *Los Rothschild y sus socios en España*, hasta *El espíritu emprendedor de los vascos*, este último, junto a su amigo José Ramón Díaz de Durana. Todos ellos, fiel a su labor y estilo, referentes para estudios futuros.

Recientemente, escribió sobre el conde del Valle, *El fotógrafo, frente a la cámara y de cerca*; estudió, como era típico en él, de manera minuciosa y completísima, la historia de la familia Ampuero, *Los Ampuero, historia de una familia vizcaína*; contó su propia experiencia, desde dentro, de los entresijos de la creación de tres importantes museos estatales, *Testigo de descargo*; y se atrevió con la historia de sus ancestros -su familia-, escrito que, en principio, publicará próximamente en formato digital la Fundación Sancho *el Sabio*.

Nuestra Cultura y nuestra Historia, aún no son conscientes de lo que han perdido. Se ha ido uno de nuestros historiadores e investigadores más serios y objetivos, y una de las personas más coherentes e íntegras que haya conocido.

¡Qué suerte conocerte, allá por 1997, en el Archivo Foral de Bizkaia! ¡Y, desde entonces, haberte tenido como amigo y haber podido mantener contigo tantas y tantas horas de gratas e interesantes conversaciones! ¡Gracias por hacerme partícipe de tu sabiduría, humana e intelectual! ¡Todo un privilegio! ¡Se te echará mucho de menos!

Agur Alfonso, agur! Edo... gero arte!

Igor Basterretxea Kerexeta

(Historiador)